

“Hobea”arrautzak

Deskribapena: Kike Amonarriz eta Estitxu Garai (Komunikazioan eta Marketinean aditua) eserita daude eraikin baten barruan.

Kike: “Aupa Estitxu, eta zuk ba al duzu iragarki kuttunik?”

Estitxu: “Bueno ba, makina bat! Baina bat aipatzearen, “Hobea” arrautzena. Ikusi al duzu, Kike?2

Kike: “Bai, bai.. Eta polita da.”

Estitxu: “Bai, polita da eta oso ondo funtzionatzen duelako bai euskaraz eta bai gaztelaniaz.”

Deskribapena: “Hobea” arrautzen iragarkia emititzen ari dira:

- Arrautzalde on! dio etxeko ataritik kalera doan gizon batek, emakume batekin gurutzatzen denean.
- Arrautzalde on! –erantzuten dio emakumeak
- Kaletik paseatzean ari da gizona, eta arrautzalde on! oihukatzen die herriko bi gizoni. Arrautzalde on! -erantzun dio gizonetako batek.
- Ondoren, arropa-denda baten ondotik igarotzen da gizona. Arrautzalde on! – esaten dio arropa-dendan lanean ari den emakumeari.
- Arrautzalde on! –erantzuten dio erakusleioa apaintzen ari den emakumeak

Iragarkiko OFF ahotsa:

Hobean, arrautza freskorik onenak eskaintzen dizkizugu egunero.

- Gizona janari-denda batera sartzen da arrautzalde on! esanez
- Dendariak arrautzalde on! esan, eta eskura dozenako arrautza-ontzia ematen dio gizonari

Iragarkiko OFF ahotsa:

Hemengoak. Kontrol guztiekin eta gure oiloek merezi duten mimoarekin.

“Hobea” arrautzak. Bertokoroak!

“Hobea” arrautza-ontzi ezberdinenak ikusten dira eta gizona dendatik irteten da arrautzekin.

Deskribapena: Iragarkia amaitu ondoren Estitxu hasi da hizketan.

Estitxu: “Titularra euskaraz da *Arrautzalde on!*, hitz-joko hori eginez eta gero gaztelaniaz *Huevos días*. Eta gero eslogana ere *Bertokoroak* euskaraz eta gaztelaniaz *De aquí, quiriqui*. Orduan, oso-oso polita geratzen da.”